



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko ekainaren 30a

68. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Altsasuko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).

—Antsoingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (18. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Altsasuko Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa,  
Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 25ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Altsasu Udalarari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, argitaratzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Altsasuko Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa,  
Comptos Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

Txosten betearazlea edo laburpena (xx. or.).

I. Sarrera (2. or.).

II. Helburua (2. or.).

III. Hedadura (4. or.).

IV. Iritzia (4. or.).

IV.1. Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2007ko abenduaren 31ko ondare-egoraren agerpena (4. or.).

IV.2. Legezkotasuna (5. or.).

IV.3. 2007ko abenduaren 31ko finantza-egoera (5. or.).

IV.4. 2005eko txostenean egindako gomendioen jarraipena (5. or.).

V. Finantza egoera (6. or.).

V.1. Altsasuko Udala (6. or.).

V.2. "Aita Barandiaran" Zahar eta Erretiratuen Egoitza (9. or.).

V.3. Musika eskola (12. or.).

VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (15. or.).

VI.1. Aspektu orokorrak (15. or.).

VI.2. Ondasun korrante eta zerbitzuen gastuak (15. or.).

VI.3. Inbertsioak (15. or.).

VI.4. Inbentarioa-lbilgetua (16. or.).

VI.5. Zerga-sarrerak, tasak eta prezio publikoak (16. or.).

VI.6. Kontingentziak eta etorkizuneko eginkizunak (16. or.).

VI.7. Hirigintza (17. or.).

Eranskina: 2007ko urteko kontuen memoria.

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorteko bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)

## TXOSTEN BETEARAZLEA EDO LABURPE-NA

Comptos Ganberak 7.527 biztanle dituen Altsasuko Udalaren fiskalizazioa egin du 2007ko ekitaldirako.

Udalak bi erakunde autonomo ditu, "Aita Barandiaran" Zahar eta Erretiratuen Egoitza eta Musika Eskola.

2007 ekitaldiko Udaleko kontu-orokorrak, sarren eta gastuen aurrekontuen likidazioaren eta ondare-ekonomikoaren egoeraren imajina zehatza adierazten du alderdi guztietan, 1989 urtetik datoren inbentarioaz aparte eta Udal-jabetasuna duten Aita Barandiaran Zahar eta Erretiratuen Egoitza eta Musika Eskola diren bere erakunde autonomoekin orri bateratua ez presentatzeaz aparte. Honetaz gain, bizirik dauden errekurtsioetatik jasan daitezkeen kontingentzien ziurgabetasuna aipatzen da.

Legezkotasunaren alorrean, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa indarrean dagoen legeria

errespetatuz burutzen da, nahiz eta lurzorua udal-ondarearen arloan zenbait salbuespen aipatzen diren.

2007ko ekitaldian Udalak 7,8 milioi euro gastatu eta 8,4 milioi euro irabazi zituen. Kopuru honi erakunde autonomoen irabaziaz gehitu behar zaizkio.

Ekitaldiaren itxieran Altsasuko Udalaren zorra 2,3 milioi eurokoa zen, zorpetzeko ahalbidea zuelarik, limitea ehuneko 19an baitzeukan eta zorpetze maila erreala ehuneko 4a baitzen.

Txostenak, Udalaren prozedurak hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren gomendio, iruzkin eta burutzapenak biltzen ditu.

### I. SARRERA

Altsasuko Udalak 7.527 biztanle ditu urtarrilaren batean egindako udal eroldaren arabera, eta dagozkion erakunde autonomoekin batera, 2007ko abenduaren 31n zifra adierazgarri hauek ditu:

Erakundea	Onartutako obligazioak	Onartutako eskubideak	Langileak 07-12-31n
Udala	7.763.130,51	8.383.864,24	72
Zaharren egoitza	822.482,42	822.482,22	22
Musika eskola	195.774,71	203.651,25	15

Udala honako mankomunitate hauetan partaide da:

a) Sakanako mankomunitatea, zaborrak biltzeko zerbitzua, ura hornitzekoa, etxebizitzak birgaitzekoa, euskarakoa eta kiroletakoa egiten dituen.

b) Oinarrizko gizarte-zerbitzuen mankomunitatea, gizarte-zerbitzu orokorrean, droga-menpekotasuneko berariazko programez eta babestutako enplegu sozialez arduratzen dena.

Toki-entitateari aplikagarri zaion legedia honako honakoa da:

- Nafarroako toki-administrazioari buruzko 6/1990 foru legea.
- Nafarroako toki-ogasunei buruzko 2/1995 foru legea.
- Nafarroako toki-araubidearen eguneratzerako 11/2004 foru legea.
- Toki-araubidearen oinarriak ezartzen dituen 7/1985 legea.

- 251/1993 Legegintzako foru-dekretua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzurako langileen estatutua.

- Kontratu publikoen 6/2006 foru legea.

- Estatuko 38/2003 diru-laguntzen legea.

- Hirigintza-kudeaketari buruzko 35/2002 foru legea.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru-dekretuak dira, guztiak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak.

- Udalaren burutze-oinarriak eta beste barne arautegia.

Txosten hau sei puntutan egituratuta dago, sarrera hau barne. Bigarren puntuan txostenaren helburuak azaltzen ditugu. Hirugarrenean hedadura azaltzen dugu, eta laugarrenean Udalaren eta bere erakunde autonomoen ondare-egoerari, legezketasunari, finantza-egoerari eta 2005eko gomendioen jarraipenari buruzko iritziaz ematen

ditugu. Bosgarren puntuan Altsasuko Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2007ko finantzen egoera-orriak azaltzen ditu. Seigarren eta azkeneko puntuan organizazioa eta barne-kontrola hobetzeko beharrezkotzat ematen ditugun iruzkinak, ondorioak eta gomendioak azaltzen ditugu.

Txostenaz gain, Udalak egindako 2007ko finantzen egoera-orriei buruzko memoria eransten dugu.

Honako lanean jasotako laguntza eskertzen diegu Udaleko eta haren erakunde autonomoen langile guztiei.

## II. HELBURUA

Nafarroako toki-administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki-ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Altsasuko Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren erregularitasunaren, finantzarioaren eta legezotasunaren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

a) Udalaren orri-bateratuak alderdi esanguratsu guztietan egoera ekonomiko-finantzarioaren, aurrekontuaren likidazioaren eta lortutako emaitzaren imajina erreala adierazten duen eta legeriak dioen bezala osatua izan den.

b) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

c) Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2007ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

d) 2005eko ekitaldiari dagokion azken fiskalizazio-txostenean Ganbera honek emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenak, Udalaren antolakuntza, barne-kontrola eta eginkortasuna hobetzeko beharrezkotzat jo ditugun gomendio eta iruzkinak biltzen ditu.

## III. HEDADURA

Comptos Ganberak 2007ko Altsasuko Udalaren orri-bateratuaren fiskalizazioa egin du, Udalaren beraren eta bere erakunde autonomoen egoera-orriak barne hartzen dituelarik.

Finantza-egoera aipagarri hauek aurkezten ditu Udalak:

a) Udalaren eta bere erakunde autonomoen ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-

orria, aurrekontuen emaitza eta diruzaintzako gel-dikina.

b) Udalaren eta bere erakunde autonomoen balantzea.

c) Udalaren eta bere erakunde autonomoen galdu-irabazien kontua.

Aipatzekoa da Udalak ez duela bere erakunde autonomoekin batera finantzen egoera-orri bateraturik aurkezten.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomoek badute kontabilitate orokorra ere, udalean ezarritako ereduaren aplikazio sinplifikatu bati esker.

Eginiko lanak hauxe izan du arretagai: aurrekontuaren betetzeari buruzko kapitulu ekonomikoak berrikustea, horien aldaketak eta aurreikuspenen betetze-maila aztertuta, eta ondare-masak ere berrikustea, antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari buruzko alderdiak aztertuta.

Azterlan hau egin dugu Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatze-ko Batzordeak onetsitako fiskalizazio-printzipioei eta araei jarraituz, eta baldintzen eta lanaren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura teknikok aplikatuz. Prozedura hauen barnean laginketa eta aurrekontuaren partiden berrikusketa selektiboak erabili dira.

## IV. IRITZIA

Altsasuko Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orriak, 2007ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldikoak, aztertu ditugu. Egoera-orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

Egindako berrikuspenaren ondorioz, honako hau deritzogu:

### IV.1. UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN 2007ko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

1989koa den ondasunen (ibilgetua) inbentarioa eguneratzeko dago. Beraz, ezin izan dugu egoera-balantzearen barne dagoen ondasunen saldoa balioztatu.

Udalak ez du finantza egoera-orri bateraturik prestatzen.

Txosten honen VI.7 puntuan aipatzen den bezala, Udala ondare erantzukizun eta hirigintza-garapenetan desadostasuna agertu duten pertsonekin erlasionaturiko zenbait prozesu judizialean sartuta dabil.

Aipatzen diren salbuespenetaz aparte, eta prozesu judizialen ondorioetatik sortu daitezkeen doitzeez aparte, 2007 ekitaldiko Udaleko kontu-orokorrek sarrerren eta gastuen likidazioaren, egoera-balantzearen eta egindako operazioen emaitzen imajina zehatza adierazten dituzte alderdi guztietan, eta bere ulermen eta interpretaziorako beharrezko informazioa barneratzen dute. Indarrean dagoen legeria publikoak dioenaren arabera eginak izan dira eta aurreko ekitaldiarekin uniformetasuna gordetzen dute.

## IV.2. LEGEZKOTASUNA

Lurzoruaren udal-ondarearen legedia ez betetzeaz gain, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa indarrean dagoen arautegiak dioenaren arabera egina izan da.

### IV.3. 2007ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

#### IV.3.1. Udalaren finantza-egoera

Hasierako aurrekontua 8,7 milioi eurokoa eta behin betiko aurrekontua 19,8 milioi eurokoa izanik, gastuetan ehuneko 39ko eta diru-sarreretan ehuneko 42ko betetze-mailak ditu.

2007ko ekitaldian gehitu egin da gastuen betetze-maila, eta ehuneko 2an murriztu diru-sarrerena.

Betetze-maila orokorra baxua izatearen arazoia inbertsioen betetze-maila baxua izan delako da, ehuneko 19koa bakarrik izan baita.

Diru-sarrerren barne, zuzeneko eta zeharkako zergen kopurua bat hartuta ekitaldiko diru-sarrerren ehuneko 31a suposatzen dute. Diru sarrerren ehuneko 35a transferentzia bidez lortu da eta ehuneko 18a 2007an formalizatutako mailegu baten bitartez.

Ekitaldiaren itxieran aurrekontu-emitza doituia 1.062.003 eurokoa izan da.

2007ko abenduaren 31n zorra 2,3 milioi eurokoa da. Zorpetze maila ehuneko 4koa da eta zor-

petze limitea ehuneko 19koa. Beraz, zorpetzeko ahalmena dauka. Diruzaintzako geldikina 1.357.686 euroko superabita dauka, eta gastu orokorretarako diruzaintza geldikina 672.080 mila euroko superabita.

#### IV.3.2. Erakunde autonomoen finantza-egoera

##### A) "Aita Barandiaran" Zahar eta Erretiratuen Egoitza

Hasierako eta behin-betiko aurrekontua 850.197 eurokoa da eta gastuak eta diru-sarrerak 822.482 eurokoak.

Egoitzaren diru-iturri nagusiak tasak eta bestelako diru-sarrerak (ekitaldian onartutako eskubideen ehuneko 51) eta kapital-transferentziak dira (ekitaldian onartutako eskubideen ehuneko 49a). Gastu adierazgarrienak langileenak eta ondasun arruntak eta zerbitzuak erostekoak dira, ehuneko 67a eta 33a suposatzen dutelarik.

Ekitaldiaren itxieran aurrekontu-emitza doituia 0 eurokoa da. Egun, egoitzak ez du zorrik, eta gastu orokorretarako diruzaintzako geldikin positiboa 20.645 eurokoa da.

##### B) Musika Eskola

Behin-betiko aurrekontua 280.390 eurokoa izanik, diru sarrerak 203.651 eurokoak izan dira, eta gastuak 195.755 eurokoak.

Gastuetan, ehuneko 90a langileenak dira. Diru-sarreretan, transferentziak eta tasak eta bestelakoak dira garrantzitsuenak, ehuneko 69 eta 30a suposatzen dutelarik.

Ekitaldiaren itxieran aurrekontuaren emitza doituia 12.106 eurokoa da eta diruzaintzako geldikina 14.018 eurokoa.

### IV.4. 2005eko TXOSTENEAN EGINDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Nahiz eta 2005eko txostenean aipatutako zenbait gomendio kontutan hartu izan diren, orokorrean administrari-kontableak diren gomendioak gaur egun bete gabe daudela baieztatu daiteke.

**V. FINANTZA EGOERA****V.1. ALTSASUKO UDALA****2007 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria**

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Onarturiko obligazioak	Ordaindua	Ordaintzekoa	Ehuneko betetze-maila	Ehuneko garrantzia
Langileriaren ordainketak	2.513.679,31	(11.800,00)	2.501.879,31	2.303.410,61	2.280.096,05	23.314,56	92	30
Ondasun aruntak eta zerbitzuak	1.724.006,76	10.020,48	1.734.027,24	1.376.880,82	1.150.595,58	226.285,24	79	18
Finantza gastuak	98.696,63	0,00	98.696,63	83.352,70	83.352,7	0,00	84	1
Transferentzia aruntak	1.405.654,83	9.340,10	1.414.994,93	1.195.120,82	819.702,36	375.418,46	84	15
Inbertsio errealak	2.789.845,68	11.082.623,46	13.872.469,14	2.648.018,32	1.884.466,59	763.551,73	19	34
Kapitalezko transferentziak	6.000,00	0,00	6.000,00	0,00	0,00	0,00	0	0
Finantza-aktiboaren bariazioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
Finantza-pasiboaren bariazioak	123.492,99	34.064,03	157.557,02	156.347,24	156.347,24	0,00	99	2
<b>Gastuen guztizkoa</b>	<b>8.661.376,20</b>	<b>11.124.248,07</b>	<b>19.785.624,27</b>	<b>7.763.130,51</b>	<b>6.374.560,52</b>	<b>1.388.569,99</b>	<b>39</b>	<b>100</b>

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Onarturiko eskubideak	Kobrantzak	Kobrartzekoa	Ehuneko betetze-maila	Ehuneko garrantzia
Zuzeneko zergak	1.892.730,98	0,00	1.892.730,98	2.011.558,26	1.607.290,04	404.268,22	106	24
Zeharkako zergak	800.000,00	0,00	800.000,00	608.688,65	496.248,34	112.440,31	76	7
Tasak eta bestelako diru-samerak	855.851,39	0,00	855.851,39	943.891,86	725.968,09	217.923,77	110	11
Transferentzia aruntak	2.220.162,18	5.064,52	2.225.226,63	2.322.656,00	2.230.784,62	91.871,38	104	28
Ondare-samerak	131.987,64	0,00	131.987,64	165.447,74	141.481,23	23.966,51	125	2
Inbertsio errealen salmentak	1.524.991,00	146.604,36	1.671.595,36	178.315,00	178.315,00	0,00	11	2
Kapitalezko transferentziak	1.235.653,01	8.487.367,07	9.723.020,08	608.306,73	-4.019,33	612.326,06	6	7
Finantza-aktiboaren bariazioak	0,00	1.479.241,63	1.479.241,63	0,00	0,00	0,00	0	0
Finantza-pasiboaren bariazioak	0,00	1.005.970,49	1.005.970,49	1.545.000,00	1.545.000,00	0,00	154	18
<b>Sarrerren guztizkoa</b>	<b>8.661.376,20</b>	<b>11.124.248,07</b>	<b>19.785.624,20</b>	<b>8.383.864,24</b>	<b>6.921.067,99</b>	<b>1.462.796,25</b>	<b>42</b>	<b>100</b>

## Aurrekontuaren emaitza

Kontzeptua	2007
+ Onarturako eskubide garbiak	8.383.864,24
- Onarturako obligazio garbiak	(7.763.130,51)
<b>Aurrekontuaren emaitza</b>	<b>620.733,33</b>
<b>Egokitzeak</b>	
- Finantzaketa desbideratze positiboak	(130.659,84)
+ Finantzaketa desbideratze negatiboak	508.187,09
- Diruzaintza geldikinen bidez finantzatutako gastuak (gehikuntzak)	51.589,00
+ Diruzaintza geldikinen bidez finantzatutako gastuak (ekitaldikoak)	12.153,80
<b>Aurrekontuaren emaitza doitua</b>	<b>1.062.003,38</b>

## Diruzaintza geldikina

Kontzeptua	2007
<b>(+) Kobratzeko eskubideak</b>	<b>2.147.074,03</b>
(+) Sameren aurrekontukoak: ekitaldi korrontea	1.462.796,25
(+) Sameren aurrekontukoak: ekitaldi itxiak	427.055,49
(+) Aurrekontuetakoak ez diren beste hainbat operazioetakoak	632.778,48
(-) Kobratzeko zalantzazko saldoak	(375.556,19)
<b>(-) Ordaintzeko obligazioak</b>	<b>1.951.182,94</b>
(+) Gastuen aurrekontukoak: ekitaldi korrontea	(1.388.569,99)
(+) Gastuen aurrekontukoak: ekitaldi itxiak	(308.990,77)
(+) Aurrekontuetakoak ez diren beste hainbat operazioetakoak	(253.622,18)
(+) Altxortegiko fondo likidoak	782.300,02
(+) Finantza desbideratze negatibo gehituak	379.494,91
<b>= Diruzaintza geldikina totala</b>	<b>1.357.686,02</b>
Gastuetarako soberakina kaltetutako finantziarioekin	18.729,34
Finantzaketa atxikita duten gastuen soberakina	666.876,81
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina	672.079,87

## Egoera balantzea

## AKTIBOA

Kontzeptua	2007	
<b>Ibilgetua</b>		<b>28.481.560,50</b>
Ibilgetu materiala	18.220.566,61	
Ibilgetu ez materiala	4.590.822,80	
Erabilera orokorrerako onda. nat. azpieg.	4.592.862,46	
Ondasun komunalak	1.077.188,43	
Inbilgetu finantzarioa	120,20	
<b>Hainbat ekitalditan banatzeko gastuak</b>		<b>0,00</b>
Ezabatzeko gastuak	0,00	
<b>Zirkunatzailea</b>		<b>3.361.785,55</b>
Izakinak	0,00	
Zordunak	2.579.485,53	
Finantza kontuak	782.300,02	
Aldizkako doitze finantzaketan behin behineko egoera	0,00	
Ekitaldiko emaitza (galera)	0,00	
<b>Guztira</b>		<b>31.843.346,05</b>

## PASIBOA

Kontzeptua	2007	
<b>Berezko fondoak</b>		<b>27.526.527,13</b>
Ondare eta erreserbak	17.574.125,98	
Galdu-irabaziak	479.098,81	
Kapitalezko diru-laguntzak	9.473.302,34	
<b>Hornidura arrisku eta gastuetarako</b>		<b>0,00</b>
Hornidurak	0,00	
<b>Hartzekodunak, epe luzera</b>		<b>2.308.780,67</b>
Zorrak, kreditu erakundeekin	2.308.780,67	
<b>Hartzekodunak, epe laburrera</b>		<b>2.008.038,25</b>
Hartzekodun komertzialak eta ez komertzialak	2.008.038,25	
Aplikatzeko dauden diru-sailak eta aldizkako doitzeak	0,00	
<b>Guztira</b>		<b>31.843.346,05</b>



## V.2. "AITA BARANDIARAN" ZAHAR ETA ERRETIRATUEN EGOITZA

## 2007 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Onarturiko obligazioak	Ordaindua	Ordaintzekoa	Ehuneko betetze-maila	Ehuneko garrantzia
Langileriaren ordainketak	571.377,94	0,00	571.377,94	551.795,19	531.179,27	20.615,92	97	67
Ondasun arruntaketa zerbitzuak	278.789,36	0,00	278.789,36	270.657,19	227.347,26	43.309,93	97	33
Gastu finantzarioak	30,04	0,00	30,04	30,04	30,04	0,00	100	0
<b>Gastuen guztizkoa</b>	<b>850.197,34</b>	<b>0,00</b>	<b>850.197,34</b>	<b>822.482,42</b>	<b>758.556,57</b>	<b>63.925,85</b>	<b>97</b>	<b>100</b>

Kontzepua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Onarturiko eskubideak	Kobrantzak	Kobratzekoa	Ehuneko betetze-maila	Ehuneko garrantzia
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	400.000,00	0,00	400.000,00	417.971,29	417.386,71	584,58	104	51
Transferentzia arruntak	448.397,34	0,00	448.397,34	401.184,80	362.584,07	38.600,73	89	49
Ondare-sarrerak	1.800,00	0,00	1.800,00	3.326,33	3.326,33	0,00	185	0
Activos financieros	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
<b>Sarreren guztizkoa</b>	<b>850.197,34</b>	<b>0,00</b>	<b>850.197,34</b>	<b>822.482,42</b>	<b>783.297,11</b>	<b>39.185,31</b>	<b>97</b>	<b>100</b>

## Aurrekontuaren emaitza

Kontzeptua	2007
+ Onarturiko eskubide garbiak	822.482,42
- Onarturiko obligazio garbiak	(822.482,42)
<b>Aurrekontuaren emaitza</b>	<b>0,00</b>
<b>Egokitzeak</b>	
Finantziaketa desbideratze positiboak	0,00
Finantziaketa desbideratze negatiboak	0,00
Diruzaintza geldikinen bidez binantziatutako gastuak	0,00
<b>Aurrekontuaren emaitza doitua</b>	<b>0,00</b>

## Diruzaintza geldikina

Kontzeptua	2007
<b>(+) Kobratzeko eskubideak</b>	<b>39.014,86</b>
(+) Sarrerren aurrekontuakoak: ekitaldi korrontea	38.396,88
(+) Sarrerren aurrekontuakoak: ekitaldi itxiak	1.557,84
(+) Aurrekontuetakoak ez diren beste hainbat operazioetakoak	0,00
(+) Kobratzeko dauden itzulerak	0,00
(-) Kobratzeko zalantza saldoak	(939,86)
<b>(-) Ordaintzeko obligazioak</b>	<b>(80.167,33)</b>
(+) Gastuen aurrekontuakoak: ekitaldi korrontea	(63.925,85)
(+) Gastuen aurrekontuakoak: ekitaldi itxiak	(0,00)
(+) Ordaintzeko dauden itzulerak	(3.128,39)
(+) Aurrekontuetakoak ez diren beste hainbat operazioetakoak	(13.113,09)
(+) Altxortegiko fondo likidoak	61.797,21
(+) Finantza desbideratze negatibo gehituak	0,00
<b>= Diruzaintza geldikina totala</b>	<b>20.644,74</b>
Gastuetarako soberakina kaltetutako finantziazioarekin	0,00
Finantziaketa atxikita duten gastuen soberakina	0,00
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina	20.644,74

## Egoera balantzea

## AKTIBOA

Kontzeptua	2007	
<b>Ibilgetua</b>		<b>0,00</b>
Ibilgetu materiala	0,00	
Ibilgetu ezmateriala	0,00	
Erabilera orokorrerako onda. nat. azpieg.	0,00	
Ondasun komunalak	0,00	
Inbilgetu finantzarioa	0,00	
<b>Hainbat ekitalditan banatzeko gastuak</b>		<b>0,00</b>
Ezabatzeko gastuak	0,00	
<b>Zirkulatzaila</b>		<b>101.751,93</b>
Izakinak	0,00	
Zordunak	39.954,72	
Finantza kontuak	61.797,21	
Aldizkako doitze finantzaketen behin behineko egoera	0,00	
Ekitaldiko emaitza (galera)	0,00	
<b>Guztira</b>		<b>101.751,93</b>

## PASIBOA

Kontzeptua	2007	
<b>Berezko fondoak</b>		<b>21.584,62</b>
Ondare eta erreserbak	18.310,50	
Galdu-irabaziak	3.274,12	
Kapitalezko diru-laguntzak	0,00	
<b>Hornidura arrisku eta gastuetarako</b>		<b>0,00</b>
Hornidurak	0,00	
<b>Hartzekodunak, epe luzera</b>		<b>0,00</b>
Zorrak, kreditu erakundeekin	0,00	
<b>Hartzekodunak, epe laburrera</b>		<b>80.167,33</b>
Hartzekodun komertzialak eta ez komertzialak	80.167,33	
Aplikatzeko dauden diru-sailak eta aldizkako doitzeak	0,00	
<b>Guztira</b>		<b>101.751,93</b>

## V.3. MUSIKA ESKOLA

## 2007 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Onarturiko obligazioak	Ordaindua	Ordaintzekoa	Ehuneko betetze-maila	Ehuneko garrantzia
Langileriaren ordainketak	258.252,06	0,00	258.252,06	176.758,30	172.738,16	4.020,14	68	90
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	15.600,00	0,00	15.600,00	14.786,61	12.178,75	2.607,86	95	8
Transferentzia arruntak	2.278,55	0,00	2.278,55	0,00	0,00	0,00	0	0
Inbertsio erreala	0,00	4.259,80	4.259,80	4.229,80	0,00	4.229,80	99	2
<b>Gastuen guztizkoa</b>	<b>276.130,61</b>	<b>4.259,80</b>	<b>280.390,41</b>	<b>195.774,71</b>	<b>184.916,91</b>	<b>10.857,80</b>	<b>70</b>	<b>100</b>

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Onarturiko eskubideak	Kobrantsak	Kobratzekoa	Ehuneko betetze-maila ejecuc.	Ehuneko garrantzia
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	88.200,24	0,00	88.200,24	62.094,71	44.937,10	17.157,61	70	30
Transferentzia arruntak	187.005,94	0,00	187.005,94	139.873,40	139.873,40	0,00	75	69
Ondare sarrerak	924,43	0,00	924,43	1.683,14	1.683,14	0,00	182	1
Aktibo finantzarioak	0,00	4.259,80	4.259,80	0,00	0,00	0,00	0	0
<b>Sarreraren guztizkoa</b>	<b>276.130,61</b>	<b>4.259,80</b>	<b>280.390,41</b>	<b>203.651,25</b>	<b>186.493,64</b>	<b>17.157,61</b>	<b>73</b>	<b>100</b>

## Aurrekontuaren emaitza

Kontzeptua	2007
+ Onarturiko eskubide garbiak	203.651,25
- Onarturiko obligazio garbiak	(195.774,71)
<b>Aurrekontuaren emaitza</b>	<b>7.876,54</b>
<b>Egokitzeak</b>	
Finantziaketa desbideratze positiboak	0,00
Finantziaketa desbideratza negatiboak	0,00
Diruzaintza geldikinen bidez finantziatutako gastuak	4.229,80
<b>Aurrekontuaren emaitza doitua</b>	<b>12.106,34</b>

## Diruzaintza geldikina

Kontzeptua	2007
<b>(+) Kobratzeko eskubideak</b>	<b>17.173,11</b>
(+) Sameren aurrekontukoak: ekitaldi korrontea	17.157,61
(+) Sameren aurrekontukoak: ekitaldi itxiak	0,00
(+) Aurrekontuetakoak ez diren beste hainbat operazioetakoak	15,50
(+) Kobratzeko dauden itzulerak	0,00
(-) Kobratzeko zalantza saldoak	0,00
<b>(-) Ordaintzeko obligazioak</b>	<b>(15.954,23)</b>
(+) Gastuen aurrekontukoak: ekitaldi korrontea	(10.857,80)
(+) Gastuen aurrekontukoak: ekitaldi itxiak	0,00
(+) Ordaintzeko dauden itzulerak	0,00
(+) Aurrekontuetakoak ez diren beste hainbat operazioetakoak	(5.096,43)
(+) Altxortegiko fondo likidoak	12.799,09
(+) Finantza desbideratze negatibo gehituak	0,00
<b>= Diruzaintza geldikina totala</b>	<b>14.017,97</b>
Gastuetarako soberakina kaltetutako finantziarioekin	
Finantziaketa atxikita duten gastuen soberakina	
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina	14.017,97

## Egoera balantzea

## AKTIBOA

Kontzeptua	2007
<b>Ibilgetua</b>	<b>21.088,83</b>
Ibilgetu materiala	21.088,83
Ibilgetu ezmateriala	0,00
Erabilera orokorrerako ondas. nat. azpieg.	0,00
Ondasun komunalak	0,00
Ibilgetu finantzarioa	0,00
<b>Hainbat ekitalditan banatzeko gastuak</b>	<b>0,00</b>
Ezabatzeko gastuak	0,00
<b>Zirkulatzaila</b>	<b>29.972,20</b>
Izakinak	0,00
Zordunak	17.173,11
Finantza kontuak	12.799,09
Aldizkako doitzak finantzaketten behin behineko egoera	0,00
Ekitaldiko emaitza (galera)	0,00
<b>Guztira</b>	<b>51.061,03</b>

## PASIBOA

Kontzeptua	2007
<b>Berezko fondoak</b>	<b>35.106,80</b>
Ondare eta erreserbak	22.695,37
Galdu-irabaziak	12.411,43
Kapitalezko diru-laguntzak	0,00
<b>Hornidura arrisku eta gastuetarako</b>	<b>0,00</b>
Hornidurak	0,00
<b>Hartzekodunak, epe luzera</b>	<b>0,00</b>
Zorak, kreditu erakundeekin	0,00
<b>Hartzekodunak, epe laburrera</b>	<b>15.954,23</b>
Hartzekodun komertzialak eta ez komertzialak	15.954,23
Aplikatzeko dauden diru-sailak eta aldizkako doitzeak.	0,00
<b>Guztira</b>	<b>51.061,03</b>

## VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian, Udalak bere antolakuntza, prozedura, kontabilitate eta barne kontrol sistemak hobetzeko aplikatu beharko lituzkeen gomendio printzipalak azaltzen ditugu.

### VI.1. ASPEKTU OROKORRAK

- *Aurrekontuak, aplikatuko diren ekitaldia hasi aurretik egin eta onestea.*

- *Erakunde autonomoei aurrekontuaren eta finantzen egoera-orrien likidazioaren presentazioa epe barruan egitea exijitzea.*

- *Hirigintzari buruzko informazioa barne hartuta memoria osatzea.*

- *Erakunde autonomoen ekintzen gainean kontu-hartzailletza eta kontrol funtzioak behar bezala bete ahal izateko prozedurak finkatzea.*

- *Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orri bateratuetarako memoria prestatzea.*

### VI.2. ONDASUN KORRONTE ETA ZERBITZUEN GASTUAK

2007an onartutako obligazioen zerrenda honakoa da:

Kapitulua	2007an onartutako obligazioak
Konponketak, mantenimendua eta artapena	186.075,73
Materialak, hornidurak eta besteak	1.147.581,20
Zerbitzuekin erlazionaturiko kalte-zerbitzuak	40.709,13
Argitalpenak	2.514,76
<b>Guztira</b>	<b>1.376.880,82</b>

Hirigintza-aholkularitza espediente aztertu dugu, eta orokorrean esan dezakegu betebeharrak legal guztiak betetzen direla.

Kapitulu honen gastuen azterketa egin ondoren, Udalak beste ekitaldietan egindako kontratazio-espedienteen eta indarrean dauden kontratuen erregistro eguneraturik ez duela ondoriozta daiteke. Honela, zerbitzugintzako kontratuen isilbidezko luzapenek, ezarritako gehieneko epea gainditzen dute zenbait kasutan.

Udalak ez du hirigintza-aholkularitza juridiko zerbitzurako kontratazio prozesurik egin. Faktura bidez frogatutako gastua 30.131 eurokoa da.

*Honakoa gomendatzen dugu:*

- *Udaleko batzorde eta sailetan sortzen diren ekimenentzako kudeaketa-prozedurak ezartzea, bai kontu-hartzailletza baita idazkaritza ere uneoro*

*informatuak izan daitezzen, eta udal-jarduketetan kontu-hartze eta indarreko legediaren betetzearen lanak behar bezala bete daitezzen.*

- *Espedienteen eta kontratuen kontrol eguneratua eramatea.*

- *Udalak jasotzen dituen zerbitzuei buruzko azterketa egitea, kontratuak berritzeko eta eskaintza berriak egiteko beharra kontuan izanda, kontratazio horiek indarrean dagoen legeriaren arabera berriro esleitzearren.*

- *Kontratuen Legedi Foralak dioen arabera, hirigintza-aholkularitza juridikoaren zerbitzurako kontratazio prozesua egitea.*

### VI.3. INBERTSIOAK

2007an onartutako obligazioen zerrenda honakoa da:

Kapitulua	2007an onartutako obligazioak
Erabilera publikoko ondasun eta azpiegiturak	206.937,37
Zerbitzuen funtzionamenduari erlazionaturiko inbertsioak	2.016.432,87
Inbertsio ezmaterialak	303.535,15
Beste inbertsioak	121.112,93
<b>Guztira</b>	<b>2.648.018,32</b>

Inbertsioen kapituluak ehuneko 34eko betetze maila izan du aurten, Zelandi, Dermau eta Lezaldeko hirigintza-garapenetan atzerapenak eman baitira.

Ondoko kontratazio-espeditenteak berrikusi ditugu, horien urte anitzeko aurrekontu-egozpena kontuan hartu gabe:

- Herriaren erdialdeko saneamendu-lanen zuzendaritza proiektua (75.662,72 €).
- 0-3 urteko eskolaren eraikuntzaren idazketa-ren proiektua (90.301,72 €).
- Oinezkoen igarobide goratuen kokapena (96.537 €).
- Otadiako obraren kontratuaren aldarapena (909.394,51 €).
- Igerilekuan eguzkitiar energia termikoa kokatzea (112.996,21 €).
- Igerilekuaren ekipamendua (100.200 €).

Espeditente hauen berrikusketaren ondorioz, tramitazio hauek, orokorrean, indarrean dagoen legediak dioenaren arabera egin direla esan daiteke.

“Santo Cristo de Otadiako” hirugarren sektorearen hirigintza obrak 2005ean esleitu ziren. Obra hauek 2008an bukatu dira, eta hasieran onartu zen proiektuarekiko zenbait desbideraketen ondorioz amaierako gastua adjudikatutakoarekiko ehuneko 45eko desbideraketa izan du. Desbideraketa hau gaizki neurtutako unitateengatik eta kontratuan bildu ez ziren unitateengatik eman da.

Indarrean dagoen legediak dioen bezala kontratuaren aldaketa egin zen arren, aldaketa hau obrak aurreratutako eta bukatutako gertu zeudenean egin zela salatu du txosten batetan udaleko idazkariak.

*Honakoa gomendatzen dugu:*

- *Datorren urtetan egingo diren inbertsioak planifikatu, burutze datak zehazten dituen inbertsio egitarau baten prestakuntzaren bitartez, betetze-mailaren ikuspuntutik begiratuta aurrekontu errealistagoak prestatzeko.*
- *Indarrean dagoen kontratazio-legediaren betetzea eta Udaleko batzorde eta sailetan sortzen diren hirigintza eta obraren ekimenentzako kudeaketa-prozedurak ezartzea, bai kontu-hartzailetza bai eta idazkaritza uneoro informatuak izan daitezen, eta udal-jarduketan kontu-hartze eta indarreko legediaren betetzearen lanak behar bezala jardun daitezen.*

- *Obra kontratuen aldaketak, hauek egin aurretik burutzea.*

#### VI.4. INBENTARIOA-IBILGETUA

- *Udalaren inbentarioa etengabe eguneratuta edukitzeko eta kontabilitatearekin lotura egokia izateko behar diren prozedurak prestatzea eta aplikatzea.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta araztea, Udalaren ondasunak behar bezala ager daitezen.*

#### VI.5. ZERGA-SARRERAK, TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK

- *Eraikuntza, instalazio eta obraren gaineko zergaren likidazioa kostu errealeko efektiboaren arabera egitea, behin-behineko likidazioa egiteko hartu zen kostua zuzenduz, eta Nafarroako Toki-ogasunaren legediak dioen arabera subjektu pasiboari diferentzia itzuli edo eskatzea.*

- *Ekonomi jardueren gaineko zergaren ordainarazpenean, abenduaren 29ko 20/2005 lege foralak dioen bezala kuotarik gabeko gainazalen gaurkotzea egitea.*

#### VI.6. KONTINGENTZIAK ETA ETORKIZUNEN EGINKIZUNAK

Udalak dituen auzietatik honakoak aipatuko ditugu:

- *Hiri-garapena burutzerakoan sortutako desadostasunen ondorioz, enpresa batek bere eskubide eta ondasunetan jasotako galerekin erlazionatutako erreklamazioa 98/2008 zenbakia duen auzibideratzearen bidez bideratzen ari da. Galdatzen den kantitatea 260.928 eurokoa da. Txosten hau egiterakoan, auzi honek Udalarari eragin diezazkiokeen ondorioak ezezagunak dira.*

- *Lezaldeko 5garren eta Dermaueko 7garren sektoreetan egindako hiri-garapenean desadostasunak direla eta, Udalak zenbait enpresa eta pertsona fisikok aurkeztutako errekurtsioekin erlazionaturiko prozesu judizialak ditu irekiak. Txosten hau egiterakoan, auzi honek Udalarari eragin diezazkiokeen ondorioak ezezagunak dira.*

- *“UE2A Domingo Lumbier” lur sailean 2004an eginiko lur-zatiketaaren ondorioz, Udalak auzi bat dauka enpresa batekin, erabaki gabe dauden hirigintza-baliatzeak direla-eta.*



## VI.7. HIRIGINTZA

2002ko azaroaren 18an BON-en argitaratu zen 2001eko abenduaren 18an hirigintza-kudeaketa komisioak baietsi zuen Altsasuko Udal-plana.

Udalak ez dauka lurzoruaren udal-ondarerik, eta osatzen duten ondasunen destinoaren jarraipenik ez du egiten.

*Gomendatzen dugu:*

- *Udal-plana indarrean dagoen hirigintza-kudeaketari buruzko 35/2002 lege foralak dioenera egokitzea.*

- *Lurzoruaren udal-ondarea osatzea eta Udaleko beste ondasunetatik berezita kudeatzea.*

- *Lurzoruaren udal-ondarean ematen diren eskudiru bidezko eta lurzoru bidezko sarrera eta irteerak erregistratzea, legerian aipatzen diren xedeetara destinatu direla justifikatuz.*

*Labur esanda, hirigintza departamentuan egindako berrikuspenaren ondorioz, honakoa gomendatzen dugu:*

- *Udalak hirigintza arloan hartzen dituen erabakien inguruan kudeaketa-prozedurak ezartzea, kontu-hartzailtzak eta idazkaritzak erabaki hauek behar bezala kontrola ditzaten.*

- *Indarrean dagoen hirigintza legediarekin ados dagoen Udal-plana zuzen betetzeko mekanismoak ezartzea, 2007an jasandakoak bezalako errekurtso gehiago jasan ez daitezten.*

- *Hirigintza-hitzarmenen erregistroa gaurkotua mantentzea eta indarrean dagoen legeriak exijitzen duen dokumentazio guztia betetzea gomendatzen dugu (txosten teknikoak, legalak etb.).*

Txosten hau aurretiazko izapide guztiak bete dugun ondoren ateratzen dugu indarrean dauden arauen arabera.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 13an

Presidentea: Luis Muñoz Garde

## **Antsoaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 24an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Antsoaingo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Antsoaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

Egindakoaren laburpena (18. or.).

- I. Sarrera (19. or.).
- II. Helburua (20. or.).
- III. Norainokoa (20. or.).
- IV. Iritzia (20. or.).
  - IV.1. Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2007ko ekitaldiko kontu orokorra(20. or.).
  - IV.2. Legezkotasuna (20. or.).
  - IV.3. 2007ko abenduaren 31ko finantza-egoera (21. or.).
  - IV.4. Gomendioen jarraipena (21. or.).
- V. 2007ko kontu orokor bateratuaren laburpena (22. or.).
  - V.1. Aurrekontuaren betetze-maila (22. or.).
  - V.2. Aurrekontu-emaizta (23. or.).
  - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria (23. or.).
  - V.4. Egoeraren balantzea (24. or.).
  - V.5. Emaizta ekonomiko eta ondarekoa (25. or.).
- VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (26. or.).
  - VI.1. Alderdi orokorrak (26. or.).
  - VI.2. Langileria (26. or.).
  - VI.3. Administrazio-kontratazioa (26. or.).
  - VI.4. Inbentarioa-lbilgetua (26. or.).
  - VI.5. Dirusarrerak (26. or.).

VI.6. Patronatuak (27. or.).

VI.7. Hirigintza (27. or.).

Eranskina: Organigrama (28. or.).

Eranskina:Urteko kontu bateratuei buruzko txostena.

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokoretako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos))

### **EGINDAKOAREN LABURPENEA**

2008ko jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Comptos Ganberak Antsoaingo Udalaren 2007ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Antsoain 10.088 biztanleko udalerria da, eta bertako udalak hiru erakunde autonomo dauzka: Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua, Euskara Sustatzeko Patronatua eta Sexu-hezkuntza eta Jaiotza-kontrolerako Patronatua. Azken horrek ez zuen jarduerarik izan 2007an, eta 2008an desegin zen.

Eginiko fiskalizaziotik ondorioztatzen da Antsoaingo Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi esanguratsu guztietan bere gastu- eta dirusarrera-aurrekontuen likidazioaren eta egoera ekonomiko eta ondarekoaren irudi leiala adierazten duela. Salbuespena inbentarioa da, zeina gaurkotzeke baitago.

Legezkotasun-analisiari dagokionez, txostenean adierazten da udalaren jarduera araudi indarduna errespetatuz gauzatzen dela.

2007an, udalak 8,2 milioi euro gastatu eta 8,9 milioi euroko dirusarrerak izan zituen. Kopuru horietan sartuta daude aipaturiko erakunde autonomoei dagozkienak. Hala gastuak nola dirusarrerak aurreko urtekoak baino zertxobait baxuagoak izan dira; batez ere, zenbait inbertsio egin ez izanaren ondorioz.

Gastuetan, nabarmentzekoak dira ondasun arrunt eta zerbitzuetan eginikoak (3,2 milioi euro), bai eta 73 langileen ordainsariak ere (2,9 milioi euro). Inbertsioen guztizko zenbatekoa 1,3 milioi euro izan zen.

Dirusarrerei dagokienez, kapitulurik garrantzitsuenak dira zergak (2,8 milioi), transferentzia arruntak (2,7 milioi), eta tasak eta bestelako dirusarrerak (2,2 milioi).

Udalak 333.249 euroko superabita eta 2,8 milioiko diruzaintza-gerakina izan zituen. Epe luzeko zorra 2,2 milioikoa da, eta zorpetze-maila, ehuneko 3koa, bere mugatik urrun (zeina ehuneko 16koa baita).

Txostenean sartuta daude, prozedurak hobetze aldera, egokitzat jo diren iruzkinak, ondorioztapenak eta gomendioak.

Erakundea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2007-12-31n
Udala	7.623.067,41	8.752.282,74	69
Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua	460.561,08	129.254,86	3
Euskara Sustatzeko Patronatua	102.823,01	31.303,18	1
Guztira	8.186.451,50	8.912.340,78	73

Arestian aipatutako patronatuez gain, udalak bazuen Sexu-hezkuntza eta Jaiotza-kontrolerako Patronatua, 2007an jarduerarik gabe egon zena eta Osoko Bilkurak hartutako erabaki baten bidez 2008an desegin zena.

Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoak eta eskualdeko taxi-zerbitzua.

Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean parte hartzen du. Horren bidez emaniko zerbitzuak dira etxez etxeko laguntza, drogamenpekotasun-programa, abegi eta gizarte-orientazioa, haurtzaroa eta familia, gizarteratzea eta lan munduan sartzea, babestutako enplegu soziala eta herritar etorkinekiko ekintzak.

Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoan ere parte hartzen du. Bulego hori Burlatan dago kokatuta. Halaber, ANIMSA sozietate publikoan parte hartzen du (informatikako zerbitzuak).

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea.

## I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraikiz, Comptos Ganberak udalaren eta haren erakunde autonomoen –Kirol eta Kultura Patronatua, Euskara Sustatzeko Patronatua– 2007ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Antsoaingo Udalak 10.088 biztanle ditu, eta hauek dira bertako zifra adierazgarrienak 2007ko abenduaren 31n:

- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutua.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Udalaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainakoa eta, laugarrenean, kontu orokorrari, legezko-tasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarren atalean 2007ko kontu orokor bateratua- ren laburpen bat jaso dugu, eta, seigarren eta azkenekoan, berriz, erakundearen barne-antolaketak eta –kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera.

Halaber, udalaren organigrama jasotzen duen gehigarri bat txertatu da, bai eta udalak 2007ko ekitaldiko kontuei buruz eginiko oroitidazkia jasotzen duen eranskin bat ere.

Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Antsoaingo Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren erregularitasun-fiskalizazioa (finantzarioa eta legezketasunari buruzkoa) egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Fiskalizatutako entitatearen kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen egoera ekonomiko-finantzarioa, haren aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitateak aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.

c) 2007ko abenduaren 31n udalak zeukan egoera finantzarioa.

d) 2006ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostenean emandako gomendioen betetze-maila.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

## III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Antsoaingo Udalaren kontu orokorraren fiskalizazioa egin du –kontu horretan sartuta daude udalarena berarena eta haren erakunde autonomoena–.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta udalaren eta haren erakunde autonomoen diruzaintza-gerakina.

- Entitatearen eta haren erakunde autonomoen egoera-balantzea.

- Entitatearen eta haren erakunde autonomoen galera eta irabazien kontua.

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontu bateratuak.

- Zorraren egoera-orria eta oroitidazkia.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka, eta horrekin kudeatzen da, halaber, erakunde autonomoen kontabilitatea; erakunde horiek organo-kode baten bidez identifikatzen dira.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

## IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Antsoaingo Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen VI. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritziak dauzkagu:

### IV.1. UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN 2007KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA

2007an zehar, udalak ondasunen inbentarioa, zeina 1995ekoa baita, berrikusi du, hura eguneratzeko.

Berrikuspena egin da 2007ko kontuak itxita zeudelarik. Horrenbestez, berrikuspen horretan zehar udalak detektaturiko aldeak 2008an kontabilizatuak izateko gelditu dira.

Aurreko lerrokadan aipaturiko salbuespenaren ondorioak alde batera utzita, udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen dute, alderdi garrantzitsu guztietan, gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, eta interpretazio nahiz ulermen egokirako behar den eta nahikoa den informazioa jasotzen dute, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta orokorki onartuak diren kontabilitate publikoko printzipio eta araei jarraituz.

#### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke udalaren eta bere erakunde autonomoen jarduera ekonomiko eta finantzarioak oro har legezkotasun printzipioa jarraitu duela 2007an.

#### IV.3. 2007KO ABENDUAREN 31KO FINANTZA-EGOERA.

Antsoaingo Udalaren hasierako aurrekontu bateratua 9.488.179 eurokoa da, eta behin betikoa, 11.046.191 eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 74koa du, eta dirusarrerena, ehuneko 81ekoa.

2007ko gastu eta dirusarrerak 2006ko ekitaldi-koak baino zertxobait apalagoak izan dira, bai zenbatekoari eta bai betetze-ehunekoari dagokionez.

Gastu-betetzeak izandako beherakadaz denaz bezainbatean, hori da inbertsioen kapituluko kontusail batzuen betetze apalaren edo deusezaren ondoriozkoa.

Langileria gastuek eta ondasun arruntak eta zerbitzuak erostearen egiten dute, hurrenez hurren, betetako guztizko gastuaren ehuneko 36 eta ehuneko 40, eta inbertsioek, berriz, betetako guztizko gastuaren ehuneko 16 egiten dute.

Betetako dirusarreraren beherakadari dagokionez, horren esplikazioa da honako kapitulu haue-  
tan izan den betetze-maila apala: 3. kapituluan (nagusiki, igeritegi ludiko-termal berria erabiltzearen kuota aurreikusiak); 6. kapituluan (batez ere,

ST unitateko lurzatiaren salmenta); eta 1. kapituluan (gehienbat, lursailen gainbalioaren gaineko zergaren kontusailean).

Dirusarrerarik garrantzitsuenak tributu-dirusarrerak (ehuneko 57) eta transferentziak (ehuneko 38) dira.

Ekitaldia ixtean, aurrekontu-eragiketen emaitza positiboa izan da (333.250 euro), egin beharreko doikuntzak egin ondoren (1.069.196 euro 2006an).

2007ko ekitaldiaren amaieran, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina, etorkizunerako sortutako likidezia, 2.791.061 eurokoa zen.

Ekitaldiko finantza-zamak ehuneko 36ko murrizketa izan du, 2006an eginiko mailegu-amortizazio aurreratuaren ondorioz.

2007ko abenduaren 31n, zor bizia 2.159.069 eurokoa zen. Zorpetze-mailaren zenbatekoa dirusarrerara arrunten ehuneko 3koa da, eta bere muga ehuneko 16an dago; horrek esan nahi duena da zorpetzeko ahalmena baduela.

#### IV.4. GOMENDIOEN JARRAIPENA

2006ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostenean jasotako gomendioak aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzen ari dira; funtsean, inbentarioari dagozkionak. Hala ere, oraindik indardun diren gomendioak txosten honetako VII. puntuan jasota daude.

**V. 2007KO KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA**

## V.1. AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA

## Dirusarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Dirusarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Kobratutakoa	Kobrantzak (%)	Kobratzeko dagoena
1 Zuzeneko zergak	1.990.093	0	1.990.093	1.792.881	90	1.565.486	87	227.396
2 Zeharkako zergak	900.000	0	900.000	1.005.015	112	963.277	96	41.738
Tasak, prezio publikoak eta beste dirusarrera batzuk	2.428.402	361.105	2.789.417	2.262.353	81	1.253.848	55	1.008.505
4 Transferentzia arruntak	2.757.910	11.725	2.769.635	2.661.659	96	2.502.833	94	158.826
Ondare dirusarrerak eta aprob. kom.	121.406	0	121.406	175.964	145	145.578	83	30.386
INBERTSIO ERREALAK								
6 BESTERENTZEA	1.050.146	0	1.050.146	340.722	32	326.982	96	13.740
7 Kapital-transferentziak	240.222	100.758	340.980	674.246	198	523.488	78	150.758
8 Aktibo finantzarioak	0	1.084.513	1.084.513	0	0	0	0	0
9 Pasibo finantzarioak	0	0	0	0	0	0	0	0
			11.046.19					
Dirusarrerak, guztira	9.488.179	1.558.011	1	8.912.841	81	7.281.492	82	1.631.349

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebehargarbiak	Betetakoa (%)	Ordainutakoa	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1 Langile-gastuak	3.356.753	50.025	3.406.777	2.975.019	87	2.928.546	98	46.473
Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	3.693.348	-39.850	3.653.498	3.243.923	89	2.845.747	88	398.177
3 Finantza-gastuak	148.163		148.163	98.297	66	98.297	100	0
4 Transferentzia arruntak	561.996		561.996	440.560	78	385.904	88	54.656
6 Inbertsio errealak	1.579.888	1.536.112	3.116.000	1.272.849	41	999.178	78	273.671
7 Kapital-transferentziak								
9 Pasibo finantzarioak	148.031	11.725	159.756	155.803	98	155.803	100	0
			11.046.19					
Gastuak, guztira	9.488.179	1.558.011	1	8.186.452	74	7.413.475	91	772.977

## V.2. AURREKONTU-EMAITZA

Aitorturiko eskubideak (2007)	8.912.840
(Aitorturiko betebeharrak, 2007)	(8.186.451)
Aurrekontu-emaiza	726.389
(Urteko finantzaketa-desbideraketa positiboak)	(462.648)
Urteko finantzaketa-desbideraketa negatiboak	-
Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	69.509
<b>BEHIN BETIKO AURREKONTU-EMAITZA</b>	<b>333.249</b>

## V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	Saldoa
Indarreko ekitaldiko eskubideak, kobratzeko daudenak	1.631.348
Itxitako ekitaldiko eskubideak, kobratzeko daudenak	798.292
Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak	113.584
Ordaintzen itzulketak	0
(Dirubilketa zaileko eskubideak)	-710.675
(Aplikatzeko dauden dirusarrerak)	-360.000
<b>Kobratzeko dauden eskubideak</b>	<b>1.472.550</b>
Indarreko ekitaldiko betebeharrak, ordaintzeko daudenak	772.976
Itxitako ekitaldiko betebeharrak, ordaintzeko daudenak	230.588
Dirusarreraren itzulketak	232
(Aplikatzeko dauden gastuak)	-69
Aurrekontuz kanpoko gastuak	347.477
<b>Ordaintzeko dauden betebeharrak</b>	<b>1.351.204</b>
Diruzaintzako funts likidoak	4.979.995

## V.4. EGOERAREN BALANTZEA

## AKTIBOA

Izena	2007	2006	Aldea
1. Ibilgetu materiala	22.069.453	28.433.789	(6.364.336)
2. Ibilgetu ez-materiala	519.271	888.669	(369.398)
3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	34.548.719	34.390.183	158.536
4. Herri ondasunak	15.731	15.731	0
5. Finantza-ibilgetua	2.342	2.342	0
A IBILGETUA	57.155.516	63.730.714	(6.575.198)
7. Izakinak	0	0	0
8. Zordunak	2.543.225	2.014.159	529.066
9 Finantza-kontuak	4.980.454	4.651.039	329.415
10. Egoera iragankorrak, aldizkatzearen ondoriozko doitzeak.	0	0	0
11. Aplikatzeko dagoen emaitza	0	0	0
C ZIRKULATZAILEA	7.523.679	6.665.198	858.481
AKTIBOA, GUZTIRA	64.679.195	70.395.912	(5.716.717)

## PASIBOA

Izena	2007	2006	Aldea
1. Ondarea eta erreserbak	56.145.710	57.114.394	(968.684)
2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	608.013	5.543.696	(4.935.683)
3. Kapital-dirulaguntzak	4.055.129	3.850.966	204.163
A FUNTS BEREKIAK	60.808.852	66.509.056	(5.700.204)
4. Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	2.159.069	2.314.872	(155.803)
C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	2.159.069	2.314.872	(155.803)
5 Aurrekontu itxietako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	1.351.274	1.571.984	(220.710)
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	360.000	0	360.000
D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	1.711.274	1.571.984	139.290
PASIBOA, GUZTIRA	64.679.195	70.395.912	(5.716.717)



## V.5. EMAITZA EKONOMIKO ETA ONDAREKOA

Izena	2007	2006	Aldea
61. Langileria gastuak	(3.047.641)	(2.941.631))	106.010
62. Finantza-gastuak	(98.297)	(169.981)	(71.684)
63. Tributuak	(28.492)	(23.145)	5.347
64. Kanpoko lan, hornidura eta zerbitzuak	(3.142.808)	(3.112.369)	30.439
67. Transferentzia arruntak	(440.559)	(431.081)	9.478
69. Amortizaziorako zuzkidura	(1.075.329)		1.075.329
Gastu arruntak, guztira	(7.833.126)	(6.678.207)	
70. Salmentak	1.321.994	1.351.066	(29.072)
71. Ondasunaren eta enpresaren errenta	738.341	659.545	78.796
72. Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	2.061.130	1.945.688	115.442
73. Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	379.904	356.706	23.198
76. Transferentzia arruntak	2.661.659	2.571.434	90.225
77. Kapitalaren gaineko zergak	356.861	948.127	(591.266)
78. Bestelako dirusarrerak	848.063	2.688.323	(1.840.260)
Dirusarrera arruntak, guztira	8.367.952	10.520.889	
EKITALDIKO EMAITZA ARRUNTAK (saldo hartzekoduna)	534.826	3.842.683	
Ibilgetuko elementuak, dohainikako eskurapenak	80.892	1.692.862	
Bestelako abonu-arrazoiak	(508)	15.522	
EKITALDIKO OHIZ KANPOKO EMAITZAK (saldo hartzekoduna)	80.384	1.708.384	
Bestelako abonu-arrazoiak			
Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	(7.198)	(7.372)	
ETEKIN GARBIA, GUZTIRA (saldo hartzekoduna)	608.012	5.543.695	

## VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira Comptos Ganberaren aburuz udalak bete beharreko gomendio nagusiak, horrela bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- *Aurrekontua eta hari dagozkion eranskinak onetsi behar dira haiek aplikatu behar diren ekitaldia hasi baino lehen.*
- *Kutxako kontaketa aldizkakoak dokumentatzea.*

Kontratua	Prozedura	Esleipena
Hiri altzariak: Skate Park	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	67.249
Hiri altzariak: haur parkea	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	44.130
Gazteen etxea	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	79.452
Ezkaba Ikastetxearen garbiketa	Irekia	101.999

Horiek aztertuta, ondorioztapena da kontratua legeak eskatzen duenari jarraikiz izapidetu dela.

Udalan prozedura normalizatua aplikatzen da erosketen kudeaketarako, eta idatziz agertzen da izapideak eta arloak zein diren.

Kontratua	Prozedura	Lizitazioa	Esleipena
Idaki eraikinean eguzki-energia termikoa instalatzea	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	197.200	190.501

Horiek aztertuta, ondorioztapena da kontratua legeak eskatzen duenari jarraikiz izapidetu dela.

### VI.4. INBENTARIOA-IBILGETUA

*Hona gomendioak:*

- *Udal ondasunen inbentarioaren eguneratze-prozesua burutzea.*
- *Udal inbentarioa etengabe eguneratzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatu eta aplikatu behar dira, ibilgetuari buruzko dokumentazioa artxibatze eta altak eta bajak kontabilizatze prozedurak definituz eta ezarriz, kontu hauei*

### VI.2. LANGILERIA

- *Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea, nomenin aplikazioak datuak automatikoki pasa ditzan kontabilitatera, eskuz eginez gero egin daitezkeen akatsak saihesteko.*

### VI.3. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA.

#### VI.3.1. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan

2007ko ekitaldian, kontzeptu horietan aitorturiko betebeharrak dira aurrekontutik beteriko guztizkoaren ehuneko 40koak.

Kontratazio-espeditente hauek aztertu ditugu:

#### VI.3.2. Inbertsioak

Kontratazio-espeditente hau aztertu dugu:

*aplikatzekoak zaizkien kontabilitate-irizpideen araber.*

### VI.5. DIRUSARRERAK

Tributu-dirusarreraren laginari dagokionez, egiaztatu dugu oro har behar bezala kudeatzen direla, haiei buruzko araudian ezarritakoari jarraikiz likidatzen eta kobratzen direla, eta egokiro kontabilizatuta daudela.

Udalak aplikatzen dituen karga-tasak indarrean dagoen legerian aurreikusten diren muga barruan daude.

Udalak azterlan bat egin du, ematen dituen zerbitzu ezberdinek 2007an izandako kostuei buruzkoa. Tasa eta prezio publikoen bitartez lortutako estaldura-maila adierazten du. Oro har, tasa eta prezio publiko horiek kostuaren azpitik daude, eta egitate hori aintzat hartzekoa litzateke, erakuntzarekin zerikusia duten dirusarreraren beherakadaren ondorioz finantza-egoera aldatuko balitz.

Inbertsio errearen besterentzeari dagokion kapituluan, nabarmentzen dira lur azpiko aparkalekuko plazak enkante publiko bidez saltzearen ondoriozko dirusarrerak.

#### VI.6. PATRONATUAK

- *Gure gomendioa da zehaztu egin behar dela erakunde autonomoen benetako autonomia maila, eta aztertu egin behar dela posible ote den horiek udal zerbitzu bihurtzea, efizientzia, eraginkortasun eta kontrol irizpideei jarraituz.*

#### VI.7. HIRIGINTZA

2007an ez da Udal Planaren aldaketarik izan.

Udalak aurkezturiko oroitidazkian (eranskinean jasota dago) xehetasunez adierazten da hirigintza-

planeamenduaren garapena, babes ofizialeko etxebizitza eraikiei buruzko informazioa, ondare-besterentzearengatik eta hirigintza-aprobetxamenduengatik azkeneko ekitaldietan lorturiko dirusarrerari buruzko kontabilitate-informazioa, eta lurzorua udal ondarekoak diren ondasunen zerrenda.

Nahiz eta udalak bere planeamendua ez duen egokitu Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko zehaztapenetara, 2006. urteari buruzko fiskalizazio-txostenean adierazten zen bezala, udalak baieztatu zuen ezen udal-plan indarduna ia osoki exekutatu zela, "eta beraz, egokitzapena jardun gehienbat teorikoa litzateke, eragin praktikodun urratsa baino gehiago". Hala ere, aurrera eramaten diren hirigintza-ekintzetan Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeko zehaztapen horiek aintzat hartu beharko dira.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## ERANSKINA: ORGANIGRAMA

2007an, udalaren organigrama honela egituratu da:

